

ALTZAIRUGINTZA. Mugasarien gatazka

AEBek salaketa jarri dute MMEn Bruselaren babes neurrien aurka

Hala ere, Europako Batasunak bere asmoekin jarraitzeko asmoa erakutsi du

Erredakzioa | **DONOSTIA**

AEB Ameriketako Estatu Batuen eta Europako Batasunaren arteko altzairuaren gerrak ez du etenik. Washington izan da orain Munduko Merkatu Erakundean (MME) EBren babes neurriak salatu dituen, duela hilabete batzuk Bruselak egin bezala.

Martxoan altzairuaren mugasariak %30era arte igotzeko erabakia iragarri zuen George W. Bush AEBetako presidentek. Orduan hasi zen ika-mika. Neurri horrek Munduko Merkataritza Erakundearen araudia hausten zuela esan zuen Bruselak, eta MMEn salaketa jartzeaz gain, babes neurriak hartuko zituela eta AEBen kontra arauak onartuko zituela iragarri zuen.

Bruselak esportazioei ezarritako mugaren aurka

Izan ere, AEBek euren merkaturia itxi ostean, batez ere Asiatik hara joaten zen altzairua Europako Batasunera sartuko den beldur da Brusela. Horregatik, esportazioen kopuruari muga bat ezarri zion martxoaren 27an, eta muga hori gaintzen duenari arantzelak %14,9 eta %26 bitartean igoko zizkiola iragarri.

Horrez gain, AEBetako hamabost produkturi mugasariak igoko dizkiola ere iragarri zuen Bruselak.

Neurri horien guztien kontra

jarri dute salaketa AEBek, eta horren inguruko azalpenak eman beharko ditu orain Bruselak MMEn.

Washington ez da Europako Batasunaren neurrien aurka agertu den bakarra. Brasil, Korea, Japonia eta Esloveniak ere gogor kritikatu dituzte neurriok, euren altzairugintza industriari eragiten dielako.

Bruselak beste pausu bat

Hala ere, Bruselak jarrera aldatzeko asmorik ez duela dirudi. Atzo bertan arantzelak igotzeko azkeneko pausoa eman zuen. MMEn AEBekin dituen «mugasari emakidak» bertan behera uzteko eskatzea erabaki zuen Europako Batzordeak. Mugasari emakidak kenduta, AEB eta Bruselaren arteko arantzelek ez lukete mugarik izango, eta, horrenbestez, nahi adina igo ahal izango ditu mugasariak.

Ekainean egingo dio eskari hori Bruselak MMEn. Dena den, AEBren aurkako neurri horiek berehalakoan aplikatzeko asmorik ez ei du Europako Batasunak, bertako iturriek adierazi dutenez. Euren hitzetan, Bruselak ez omen du nahi AEB zigortzea, bere merkatuak itxteak Europako Batasunari eragin dizkion kalteen ordainak ematea baizik. Hori negoziatzeko egin dituzte bilerak Brusela eta Washingtonen ordezkariak, baina, oraingoz, ez dute aurreapausorik eman.

MAKINA-ERREMINTA. XIX. mendetik gaur arte izaniko bilakaera jaso dute



Ahaztuta dauden ofizioak berreskuratzeko asmotan

Elgoibarko makina-erreminta museoak kanpaina bat jarri du abian, sektore horrekin zerikusi handia izan duten baina dagoeneko ahaztuta dauden ofizioak berreskuratzeko. Elgoibar eta bere inguruetan metal eta burdinarekin lanean aritu direnen ofizioen inguruko informazioa berreskuratu nahi du. Makina-erreminta sektorearen «ondare abe-

rats bat ezkututik ateratzea nahi dugu, gu egun garena euri esker baikara eta aintzat hartzea merezi baitute», azaldu zuen Pedro Ortuondo Museo-ko presidentek. Lan horretan Kutxaren laguntza izango dute. Finantza erakundeak 27.000 euro emango dizkio museoari proiektu horretan erabiltzeko.

LAGURAEAN

ELA eta LAB «ikuspegi laburreko sindikatuak» direla diote CCOO eta UGTk

ELA eta LABk greba orokorrera ekainaren 19rako deitu dutela eta, «ikuspegi laburreko sindikalismoa» egitea egotzi die UGT eta CCOO. Sindikatuon aburuz, sindikatu abertzaleak «aprobetxategiak» dira greba orokorra baliatu nahi dutelako lan harremanetarako euskal esparrua eskatzeko. Halaber, Nafarroako Parlamentuak ekainaren 19ko ekitaldiak bertan behera utzi izana «ulertezina» dela esan dute.

Madrilgo gobernuak errentaren gainera zergaren erreforma onartu du Espainian

Espainiako Gobernuak errentaren gainera zergaren erreforma onartu zuen atzo, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina indarrean egongo da Espainian. Haatik, erreforma honek ez du printzipioz eraginik izango Hego Euskal Herrian, aldundietako ogasunek aldatetarik egin ezan. Batez beste, errenta maila guztientzat %11ko aurrezpena ekarriko du.

Managing 2002 azokan sektoreko 1.400 profesional izan dira egunotan

Enpresa kudeaketa berritzeko nazioarteko Managing 2002 azokak 1.400 profesionalen bisita jaso du asteazkenetik ostiralera bitartean. Enpresen kudeaketaren bitartez lehiakortasun handiagoa errazteko tresna eta esperientziak aurkeztu dira. Bizkaiko Aldundiko Ekonomi Sustapeneko Sailak, SPRIk, Ezagutzaren Klusterrak eta Bilboko Erakustazokak antolatu dute aurtengo azoka.

Raffarinnek dio «onartezinak» direla EBk arrantza berritzeko egin proposamenak

Jean-Pierre Raffarin Frantziako lehen ministroak atzo adierazi zuen Bruselak arrantza politika erreformatzeko egindako proposamenak ez direla «osoak, ezta nahikoak ere». Lehen ministroaren iritziz, «onartezina da Bruselaren erabakia, arrantzaleen segurtasuna bermatzen duten laguntzak kendu nahi dituelako», salatu zuen.

BURTSA. Futbol mundiala hasi, eta burtsan aldaketa handiak izan ziren atzo

Errebote (ez hain) mundiala

J. B. Andueza |

Mundu erdia futbol mundialaren hasieraz ari zela, gure akzio merkatuetan merkealdietan golak sartzeko gosea nagusitu zen. Hori bai, zorakeriarik egin gabe. Euroguneko urtebeteko KPI maiatzean %2koa izango dela aurreikusi du Eurostatek, eta datu on horrek lagunduko du


Duisenbergekin interesik igo ez dezan. Bezperan AEBetako langabeak gehitzea datu txarra baten, atzo Michigango Unibertsitateko konfiantza indizean zegoen arreta jarria. SIBen banku eta teknologia enpresek gidatu zuten goizaldeko igoera. Ibox indizean, TerraLycos (%+7,24) eta TPIk (%+6,38) gidatu zuten %1,2ko igoera.

DATUA

Tabakoaren aurka Nafarroan hartu neurriek segida izan dute Espainiako Gobernuan. Banaketa makinak debekatu eta zergak igotzeko proposamenak tabakoarekin eta banaketarekin zerikusia duten enpresei kalte egin die. Altadis %3 jaitzi zen, eta Nafarroako Azkoyen %10.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%1,12** | Azken indizea **1.392,77** | Aurreko indizea **1.377,35**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.008,35 (+%0,96)
Tokio (Nikkei)	11.763,7 (-%0,05)
Madrid (IBEX-35)	7.949,9 (+%1,21)
Paris (CAC-40)	4.274,64 (+%0,34)
Londres (FTSE 100)	5.085,1 (+%0,88)
Frankfurt (DAX)	4.818,3 (+%1,18)
Milan (Mibtel)	21.952 (-%0,20)

* Eguerdita arte

Dibisen merkatua

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	0,9387
Libera Esterlina	0,6405
100 Yen (Japonia)	1,1639